

# bilbotxo

## Birziklatu beharreko zaborra

Konpartsetako txosnek egunaren buruan sortzen den zabor guztia ontzi berezietan sartu behar izaten dute, gero bakoitza hobeto birziklitzeko. Hala ere, Udaleko beharginek ontzi guztietako zaborra nahasten dute. Alferreko beharra.



**XOUSE SIMAL**  
Garbitzaile bat, txosnen eremua atontzen.

## Bilbok badauka bere 'itsusi' ofiziala

Alberto du izena, eta bera da Bilboko Aste Nagusiko pertsonarik zatarrena. Urtero bezala, itsusien lehiaketa antolatua zuen herenegun Moskottarrak konpartsak. Zatarrak egon ziren taula gainean, eta aurpegi izutuak eurei begira.

## Okerreko bidea hartzearen ondorioak

Harrigarria izan zen herenegun gauean Arriagako zubian ikusitakoa. Jende andana su artifizialak ikusteko zain zegoen Arriaga aurrean, baina auto batek erditik joan nahi zuen. Oraindik ezin da ulertu nola lortu zuen haraino ailegatzea.

# Gure txosnatik



**INIGO AZKONA**

## Ondo jan jaiak sasoiari amaitzeko

Bilboko Aste Nagusia azkenean txanpan sartu, eta batek baino gehiagok ezin du bere gorputzarekin. Jaiaren azken larunbatean bazkaria egiten dute konpartsetakoek. Azaldu ez badigute ere, indarrak berritzeko egiten omen dute. Konpartsen artean herenegun jokaturako estropaden sariak banatzeko aprobetxatu zuten: Tintigorri izan zen onena. Bandera urdina (Manu Chao) eta bandera marroia (El Correo Español) sariak ere banatu zituzten, jaietako alde ona eta txarra nabarmentzeko.

## EGITARAUA

### GAUR

- 09:00:** Areatzan, gastronomia lehiaketa. Gaur, zezen-buztana prestatu beharko dute izena ematen dutenek.
- 10:00:** Txistularien diana eta txapligua.
- 11:00:** Erraldoi eta buruhandien kalejira.
- 11:00:** Erripako kaian, Txikigunea, haurrentzako hainbat jolas eta ekitaldirekin.
- 11:00:** Uribitarteko kaian, Gaztegunea.
- 11:00:** Itxaropena pilotalekuan, pilota txapelketa. Finala.
- 11:00:** Bilbao-Kajak. Udaletxea.
- 11:30:** Arriaga plazan, Hiri Krosa.
- 12:00:** Pergolan, bilbainadak. Los Cinco Bilbainos-en emanaldia.
- 12:00:** Areatzan, erraldoiak eta buruhandiak elkarrekin.
- 12:30:** Areatzako kioskoan, Udal Musika Bandaren kontzertua.
- 13:00:** Zazpikaleetan, bilbotarrak.
- 13:00:** Plaza Barrian, bertsolariak: Amuriza, Egaña, Enbeita eta Lopategi.
- 13:00:** Arriaga plazan, Alex Navarro.
- 13:30:** Areatzan, Udal Musika Banda.
- 17:00:** Erripako kaian, Txikigunea. Herriko txikientzako prestatutako jolas eta ekitaldiekin.
- 17:00:** Uribitarteko kaian, Gaztegunea.
- 17:00:** Zaldunen eta mandoen igoera.
- 18:00:** Zezenketa. Toreatzaileak: Caballero, Pepin Liria eta Puerto.
- 19:00:** Erripako kaian, haurrentzako antzerkia: Kollins Clown.
- 19:00:** Plaza Barrian, euskal dantzak.
- 20:00:** Plaza Barrian, erromeria.
- 20:15:** Gizakundeko elizan, musika klasikoa. Inseme taldea.
- 20:30:** Arriaga plazan, zezenuzkoa.
- 21:00:** Bilborock aretoan, Yllana.
- 22:30:** Arriaga plaza. Aurtengo Aste Nagusiko jaien amaiera berezia eta agurra Marijaiari.
- 23:00:** Su artifizialak. Igual (Bartzelona).

# Egunkaria Txosna

## Euskal gunean

### GIRO APARTA !!

1 Kaskagorri	11 Satorrak	21 Mamiki	31 Urbarri
2 Kobetas Mendi	12 Hor Dagol	22 Pingilinpaxa	32 Tint gorri
3 Askapeña	13 Hau Pittu Hau	23 Inbausti	33 Aixe Berri
4 Pe Yal	14 Eguzkizaleak	24 Mekaguan	
5 Kaixo	15 Txori-Barrote	25 Bizizaleak	
6 Irintzi	16 Sin Kuartel	26 Arrainak	
7 Algara	17 Txomin Barullo	27 Adiskideak	
8 Moskottarrak	18 Gogoregi		
9 Lehoiak			
10 Hontzak			